

FAMILIA UGARIENTZAKO HOBARIA



Udalak ondoren zehazten diren hobariak emango ditu:

Getariako Udalak familia ugarietzako hainbat hobari onartu ditu, hiri-lurreko Ondasun Higiezinaren Zergari dagozkionak. Interesatuak otsailaren 28a arteko epea dute hobari horiek eskatzeko udal bulegoetan.

Familia ugariaren izaera kreditatuta daukatenean, izaera hiri-lur **BATENTZAKO** eska dezakete hobaria, higiezinaren balio katastrala gehienez 180.000 euro arteko balioa arte eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Familia ugariaren ohiko etxebizitza izan behar du eta bertan erroldatuta egon behar dute.
- Familia ugari inork ezin du izan beste ondasun higiezinaren jabe.

Hobariak hauek izango dira:

- Adin txikiko edo 24 urtetik beherako 3 seme-alaba, baldin eta azken horiek ikasten ari direla egiaztatzen badute: kuota osoaren % 60.
- Adin txikiko edo 24 urtetik beherako 4 seme-alaba, baldin eta azken horiek ikasten ari direla egiaztatzen badute: kuota osoaren % 70.
- Adin txikiko edo 24 urtetik beherako 5 seme-alaba, baldin eta azken horiek ikasten ari direla egiaztatzen badute: kuota osoaren % 90.

Hobari horiek eskatu nahi dituztenek udal bulegoetara jo behar dute **martxoaren 15a** bitartean, honako ordutegian: 9:00etatik 13:00era, asteleheneetik ostiralera eta asteleheneetan 17:00etatik 19:00etara. Bertan emango zaien instantzia bete beharko dute honako dokumentazioarekin batera, (horretarako erantsita dagoen artxiboa erabili daiteke):

- Familia ugariaren izaera egiaztatzen duen agiria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko zerga bulegoak emandako ziurtagiria (ohiko bizilekuaz gain beste higiezinik ez dutela egiaztatuz). Agiri hau eskatzeko: <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HCRCertificadosWEB/solicitud.do> link-ean klikatu eta jarraibideei segi: "Eskatu orain ziurtagiria", datu pertsonalak sartu, eta ziurtagiri motan "Ondasun higiezinak: pertsona edo entitate batenak" aukeratu.
- 2023ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako errezioboaren kopia.

Interesatuak gogoan izan behar dute, nolahi ere, urtero aurkeztu behar dela hobariaren eskaera.